BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3004

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 5ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, hondakin ez-arriskutsuen zabortegi proiekturako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Beasaingo (Gipuzkoa) udalerrian eta Sasieta Mankomunitateak sustatua.

AURREKARIAK

2008ko urriaren 6an, Juan Martín Aldareguí Echeverría jaunak, Sasieta Mankomunitatearen izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2006 Legeak xedatutakoaren arabera, Beasaingo (Gipuzkoa) udalerriko hondakin ez-arriskutsuen zabortegi-proiekturako. Eskaerarekin batera honako dokumentazio tekniko hau aurkeztu zuen:

– Sasietako (Beasain, Gipuzkoa) hiriko hondakinen eta parekagarrien zabortegirako ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko proiektua (2008ko ekainak 30).

– Sasietako (Beasain, Gipuzkoa) hiriko hondakinen eta parekagarrien zabortegiaren I. fasea berreskuratzeko eta ixteko proiektua (2007ko urriak 26).

– Sasietako (Beasain, Gipuzkoa) hiriko hondakinen eta parekagarrien zabortegiaren II. fasea berreskuratzeko eta ixteko proiektua (2008ko ekainak 30).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Sasieta Mankomunitateak, besteak beste, saneamendu-sarera isurtzeko baimena eta ondorengo zabaltze eta berritzeak zituen, uren arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2010eko uztailaren 9an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Sasieta Mankomunitateak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2010eko irailaren 2an.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2010eko abenduaren 10ean Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Beasaingo Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2011ko apirilaren 18an, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Sasieta Mankomunitatearen esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, baimen honetan sartzen dira, 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatu ez arren, lege horren aplikazio-eremukoak diren jardueren instalazioetan gauzatzen diren eta jarduera horrekin zerikusi teknikoa duten ekoizpen-elementu eta -linea guztiak.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Sasieta Mankomunitatearen kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin geldoak kudeatzeko baimena; saneamendu-sarera isurketak egiteko baimena; eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkionak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Sasieta Mankomunitateari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 27/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Beasaingo Udalaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak, eta aplikatzekoa den sektoreko legeriak zehaztutako neurriak eta baldintzak.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, Ebazpen Proposamena sinatu eta Sasieta Mankomunitateak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura

organikoa ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2011ko apirilaren 18an emandako ebazpen-proposamena; Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua; Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplika daitekeen gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Beasaingo udalerriko (Gipuzkoa) Martina Maiz kaleko 3. zenbakian, behean, 20200, eta IFK: Q-2000539C duen Sasieta Mankomunitateari ingurumeneko baimen bateratua ematea Beasaingo udalerrian hondakin ez-arriskutsuen zabortegirako, ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduerak 5.4 kategoriako sailkapena du Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa den uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean: «Mota guztietako hondakinen zabortegiak, egunean 10 tonatik gora hartzen dituztenak, edo guztira 25.000 tonatik gora hartzen dituztenak, hondakin geldoen zabortegien kasuan izan ezik».

Sasieta Mankomunitateak sustatutako jarduera hondakin ez-arriskutsuen zabortegi bat ustiatzea da.

Sasietako zabortegia Beasaingo udalerriko (Gipuzkoa) Salbatore auzoan dago. Zabortegia Irun-Madril trenbidearen hegoaldean dago, eta sarrera-eraikina eta baskula haren iparraldean daude.

Hauek dira UTM koordenatuak zabortegian bertan: X: 562663; Y: 4766361; Z: 199 m.

Zabortegiak hartzen duen azalera Sasieta Mankomunitatearen jabetzako eta Jabetza Erregistroan inskribatutako erregistro-finka hauei dagokio:

– 10709 erregistro-finka: 1.133 m^2.

– 10710 erregistro-finka: 2.148 m^2.

– 10711 erregistro-finka: 252 m^2.

– 10712 erregistro-finka: 1.368 m^2.

– 10713 erregistro-finka: 1.813 m^2.

– 10714 erregistro-finka: 1.148,20 m^2.

– 10715 erregistro-finka: 1.733 m^2.

– 10716 erregistro-finka: 700 m^2.

– 10717 erregistro-finka: 1.210 m^2.

– 10718 erregistro-finka: 100 m^2.

– 10719 erregistro-finka: 835 m².

– 10720 erregistro-finka: 458 m².

– 741 erregistro-finka: 6.532,50 m².

– 434 erregistro-finka: 47,75 area.

– 10745 erregistro-finka: 25,14 area.

– 11535 erregistro-finka: 3.664 m².

– 11536 erregistro-finka: 196 m².

– 11537 erregistro-finka: 7.691,25 m².

– 1125 erregistro-finka: 120,40 area.

– 11545 erregistro-finka: 11.697 m².

– 412 erregistro-finka: 2.739 m².

– 11565 erregistro-finka: 396,88 m².

– 489 erregistro-finka: 14.783 m².

– 13447 erregistro-finka: 3.800,63 m².

– 13448 erregistro-finka: 2.132,50 m².

– 13446 erregistro-finka: 1.720 m².

– 1338 erregistro-finka: 4.807,75 m².

– 13473 erregistro-finka: 4.764 m².

– 197 erregistro-finka: 5.073,75 m².

– 11802 erregistro-finka: 828 m².

– 11803 erregistro-finka: 226 m².

– 13834 erregistro-finka: 11.460 m².

Zabortegiaren guztizko azalera 134.700 m²-koa da gutxi gorabehera. Gaur egun ustiatutako gainazalak (II. fasea) gutxi gorabehera 59.420 m²-ko azalera eta 740.000 m³-ko edukiera ditu. Baimendutako ustiapen-azalera erregistratuta dagoena da, baina 3. planoan (Ingurua eta itxitura) eskatutako zabaltzea gehituta, organo honen aurrean 2008ko urriaren 6an aurkeztu zena.

Instalazioa honela dago sailkatuta: hondakin ez-arriskutsu mistoetarako zabortegia (funtsean, hondakin organiko edo biodegradagarriak nahiz hondakin ez-organikoak dira) (B3 azpikategoria), otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

Instalaziorako sarreran pisatzeko baskula bat dago, bai eta ibilgailuen gurpilak garbitzeko instalazio bat ere.

Zabortegian sortutako hondakin nagusiak, batez ere, ibilgailuen eta makinen mantentze-lanak egitean sortutako hondakin arriskutsuak dira; hala nola, gai arriskutsuz egindako ontziak, gai inpregnatuak, filtroak eta bestelako elementu arriskutsuak.

Bada zabortegian sortutako biogasa ateratzeko sare bat, haien balorizazio energetikoa egiteko.

Zabortegiaren burualdean jasotzen dira euri-urak, eta ur garbiak drainatzeko perimetro-sistema baten bidez garraiatzen dira.

Lixibiatuak jaso egiten dira, eta Gipuzkoako Uren saneamendu-sareko kolektorera isurtzen, Gaikaoko hondakin-uren araztegian tratatzeko.

Bigarrena.– Sasieta Mankomunitateak Beasaingo udalerrian sustatutako hondakin ez-arriskutsuen zabortegiaren jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea:

A) Erantzukizun zibileko aseguru bat eratu behar da milioi bat (1.000.000) euroko zenbatekoaz, ondorengoak estaliko dituena: hirugarren pertsonei edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen hondatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Sasieta Mankomunitateak erantzukizun zibileko asegurua eguneratu izanaren ziurtagiria igorri behar du urtero ingurumen-organora, eta polizan edozein aldaketa gertatu bada, ingurumen-organoari jakinarazi beharko dio. Gainera, kontratatutako aseguru berria osatzen duten baldintza orokor, berezi eta berariazkoen kopia ere igorriko da.

B) Sustatzaileak finantzen azterketa eguneratua aurkeztu beharko du, eta, bertan, honako hauek adieraziko dira: instalazioa ezartzeko eta ustiatzeko kostuak; A puntuan (erantzukizun zibileko asegurua) ezarritako bermeetatik eratorritako gastuak; zabortegia ixteak eta ondorengo 30 urteko aldirako mantentze-lanek eragindako kostuak; eta baimen honetan ezarritako eskakizun guztien kostuak ere, neurri babesleak eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa betetzeari buruzkoak, bai eta inplementatuko den instalazioaren kostua ere, D.3.4 atalean –Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak– ezarritakoaren arabera.

Finantzen azterketa horretan, gastuak eta diru-sarrerak partidaka eta urteka xehatuta egon beharko dira, aurreikusitako ustiapen-planarekiko koherentzian.

Hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren 14. artikuluaren hirugarren atalean ezarritakoaren arabera, Organo horrek hiru urtean behin eguneratuko du fidantza, prezioen indize orokorraren aldaketaren arabera, eta fidantza eratzen den egunean indarrean dagoen indizea hartuko da oinarritzat.

C) Sasieta Mankomunitateak instalazioaren eta Administrazioarekiko harremanen arduradun tekniko bat izendatu beharko du. Izendapen horiek Sasieta Mankomunitatearen legezko ordezkari batek eta izendatutako pertsonak sinatutako dokumentu batean jasoko dira, eta datu hauek erantsiko dira: izen-abizenak, NAN, harremanetarako helbidea eta prestakuntza teknikoa. Sasieta Mankomunitateak izendapen horiek bidaliko dizkio ingurumen-organoari.

D) Ingurumen-organoari aurkeztu zaizkion agirietan adierazten den moduan burutuko ditu sustatzaileak baimenean adierazten diren neurri babesle eta zuzentzaileak, eta beti beteko ditu indarrean den araubidea eta atal hauetan adierazten diren xedapenak:

D.1.– Obra-faseko baldintza orokorrak.

D.1.1.– Jarduketa-esparrua mugatzea.

a) Obrak eta lurzoruaren okupazioa ekartzen duten eragiketa osagarriak proiektuaren mugen barruan garatuko dira. Ahalik eta gehien murriztuko da obretako makinen eta ibilgailuen zirkulazioa aipatutako mugetatik kanpo.

b) Adierazitako esparru horretan ustekabeko kalteren bat sortzen baldin bada, neurri zuzentzaile eta eraberritzaile egokiak hartuko dira, ebazpen honen D.1.7 atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak egindako txostenari erreparatuta.

c) Obrarako sarbideak, makina-parkea, obrako materialak aldi baterako biltegiratzeko gunea, hondeaketa-lurren eta hondakinen aldi baterako metaketak ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izateko moduan proiektatuko dira. Obrak hasi aurretik, aurreko alderdiak xehetasunez adierazten dituen mugaketa egingo da kartografian. Mugaketa hori obra-zuzendaritzak onartu beharko du, ebazpen honen D.1.7 atalean aipatzen den ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

D.1.2.– Lurzorua eta urak babesteko neurriak.

a) Drainatze naturaleko saretik bereiziko dira obrako makinak edukitzeko eta haien mantentze-lanak egiteko tokiak. Zolata iragazgaitza eta efluenteak biltzeko sistema izango ditu, olioek eta erregaiek lurzorua eta ura kutsa ez ditzaten. Ezin izango da erregairik zamatu, oliorik aldatu eta tailerreko lanik egin adierazitako gunetik kanpo.

b) Eraikuntza-lanak egin bitartean, ahalik eta material xehe gutxien bota behar da drainatze naturaleko sarera. Horretarako, urak bideratzeko gailuak eta solido esekiei eusteko sistemak proiektatu eta egingo dira, obren ondorioz kutsatutako urak bertan biltzeko.

D.1.3.– Hauts-isurtzeak gutxitzeko neurriak.

a) Obrak dirauen artean, bideak eta ibilgailuak igarotzeko beste lekuak garbitzeko kontrol zorrotza burutuko da, bai obrek erasandako ingurunean, bai horietarako sarbideetan. Aldi baterako hutsik dauden pistak eta azalerak ureztatzeko sistema bat eduki beharko da.

b) Obra-guneetako irteeran ibilgailuak garbitzeko gailuak izango dira. Gailu horien ezaugarriak eta kokaleku zehatza ebazpen honen E.1.8 puntuak aipatzen duen agirian jaso beharko dira.

D.1.4.– Zarata eta bibrazioen eraginak gutxitzeko neurriak.

Eraikuntza-fasean, proiektuan eta Ebazpen honetan deskribaturiko neurriak aplikatu beharko dira, makineriaren baldintzei dagokionez, aire zabalean erabiltzeko makinek ingurunean egiten dituzten soinu-igorpenak, haien mantentze-lanak eta lan-ordutegiak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuak ezarritakoa betetzeko (apirilaren 28ko 524/2006 Errege Dekretuak aldatu zuen Errege Dekretu hori).

D.1.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Obrek iraun bitartean sortutako hondakinak, hau da, obra-lekuak prestatzeko lanetatik sortzen direnak, bilgarriak, baztertzen diren lehengaiak eta garbiketa-lanetako soberakinak, hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean, eta aplikatzekoak diren berariazko araudietan aurreikusitakoaren arabera kudeatuko dira.

b) Obran sortutako hondakin guztiak, horien baliotzea teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada, hondakin-balioztagune baimendu batera igorri beharko dira. Hondakin horien baliotzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenaren ikuspegitik bideraezina dela behar bezala ziurtatu ondoren soilik deuseztatu ahal izango dira hondakinak.

c) Zabortegira bideratu behar diren berrerabili edo baliotu gabeko materialak zabortegietan hondakinak onartzeko irizpide eta prozeduren arabera kudeatu behar dira.

d) Betelanak egiteko edo lurra egokitzeko hondakinak kudeatzeko, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoa jarraituko da.

e) Hondeaketa-soberakinetarako betelan bat sustatu nahi bada, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoa betez, dagokion betelan-proiektua idatzi beharko da, Udalaren edo Organo honen lizentzia lortzeko, arau horretako 26. artikuluan ezartzen denaren arabera.

f) Olio erabiliak ondorengo araudiei jarraituz kudeatuko dira: irailaren 29ko 259/1998 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko olio erabilien kudeaketa arautzen duena, eta ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua, industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duena.

Olio erabiliak kubeta edo segurtasun-sistema barruko andeletan gordeko dira aldi baterako, kudeatzaile baimenduak jaso arte, andel nagusia hausteagatik edo estankotasuna galtzeagatik olioak sakabanatzea saihesteko. Horretarako, kontratistak berak dituenak edo Sasieta Mankomunitateak Sasietako zabortegiko instalazioetan dituenak erabiliko dira.

g) Hondakinak kudeatzeko araudia betetzea errazteko, lan guztietan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak jarri beharko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistema horiek, eta horien ardura izango da, halaber, beharginek hondakinak behar bezala erabiltzea. Bereziki, erregai eta produktuak biltegiratzearen, makinen mantentze-lanak egitearen edo hondakinak erretzearen ondorioz ez dira inolaz ere efluente kontrolatu gabeak sortuko.

Aurrekoaren ildotik, gune espezifiko bat prestatuko da, eta bertan jarriko dira hondakin arriskutsuak (olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar) aldi baterako gordeko dituzten instalazio estaliak; horietatik bereizita, edukiontzi espezifikoak jarriko dira hondakin ez-arriskutsu eta geldoentzako. Edukiontzi horiek itxita egongo dira kudeatzaileari entregatu arte, isurketa edo lurrunketa direla-eta edukia ez galtzeko. Era berean, sortutako hondakinak biltzeko gailu estankoak (bidoiak eta abar) ezarriko dira obran, eta izaeraren arabera bereiziko dira. Hori guztia, aipatutako gune garbian aldi baterako biltegiratu aurretik egingo da, eta horretarako, kontratistak dituenak edo Sasieta Mankomunitateak Sasietako zabortegiaren instalazioetan dituenak erabiliko dira.

D.1.6.– Obraren garbiketa eta akabera.

Obrak bukatu ondoren, eremua ondo garbitu beharko da, proiektuaren eragin-eremutik obra-hondakin guztiak kenduz.

D.1.7.– Ingurumen-aholkularitza.

Obra amaitu arte eta haren berme-aldian, obra-zuzendaritzak ingurumenaren, eta oro har, neurri babesle eta zuzentzaileen inguruan kualifikatutako aholkularitza izan beharko du. Baldintza-agiriak obraren zuzendaritzari esleitzen dizkion funtzioekin lotutako ebazpenak emateko, aldez aurretik aholkularitza ematen duten adituek egindako txostena aztertu beharko da.

D.1.8.– Lan-programa diseinatzea.

Kontratistak ekintza-proposamen xehatu batzuk egin beharko ditu ondorengo azpiataletan adierazitako alderdiei buruz. Proposamen horiek, ebazpen honetan kasu bakoitzerako ezartzen diren irizpideen arabera diseinatuko dira eta obra-zuzendaritzak espresuki onetsi beharko ditu, aurreko atalean aipatutako ingurumen-aholkularitzak aurrez txostena eginda. Ondoren lanak burutzeko programan txertatuko dira. Honakoak dira agiriok:

a) Kontratistaren instalazioen guneen kokapenari eta ezaugarrien eta hondakinak aldi baterako biltegiratzeari buruzko xehetasunak, ebazpen honen D.1.1 atalean aurreikusitakoaren arabera.

b) Ebazpen honen D.1.2 atalak aipatzen dituen interesa duten eta okupazio zuzena aurreikusita ez dagoen landaredi-guneak kartografian xehetasunez seinaleztatzea.

c) Ebazpen honen D.1.3 atalean aurreikusitako solido esekiak atxikitzeko gailuen xehetasunak eta kokapena.

d) Ebazpen honen D.1.4 atalean aurreikusitako ibilgailuak garbitzeko gailuen xehetasunak eta kokapena.

D.1.9.– Jarraibide egokien kontrola obren garapenean zehar.

Obrak garatu bitartean jardunbide egokien kontrol bat egingo da, arreta berezia jarriz eragindako azalerari eta ingurune urtarraren babesari, hondakinen kudeaketari (hondeaketako soberakinak barne), solido esekiei eusteko gailuen funtzionamenduari, hautsa eta zarata egiteari, eta ebazpen honetan adierazitako beste alderdi batzuei.

D.1.10.– Obra-amaierako txostena.

Obra bukatu eta hilabeteko epean, Sasieta Mankomunitateak obraren zuzendaritzak sinatutako obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko dio ingurumen-organoari. Honako agiriak jaso behar ditu:

– Obren garapenean zehar sortutako gorabeherak.

– Ebazpen honetan jasotako neurri babesle eta zuzentzaileen betetze-maila, eta hondeaketa-materialen kudeaketa zuzena gauzatzeko ingurumen-organoak eskatutako neurriena.

– Hala badagokio, obra gauzatu bitartean gehitu diren aldaketak. Xehetasunez dokumentatu beharko dira, segurtasunaren edo ingurumen-babesaren murrizketa ez dutela ekartzen egiaztatuz (dagokionean, kalkulu justifikagarriak). «as built» planoak gehituko dira.

– Obran barrena garatutako ingurumena zaintzeko programaren emaitzen txostena, sortu diren hondeaketa-materialen helmuga zehatza eta kopurua gehituz.

– Eraikitze-kalitatearen berme-kontrolaren emaitzak jasotzen dituen txostena, bereziki, geosintetikoen instalazioarena edo *in situ* trinkotutako material mineralekin egindako hesi geologiko artifizialen instalazioarena.

D.2.– Ontzia egokitzeko eta zabortegiaren iragazgaizte-obrak gauzatzeko baldintzak.

D.2.1.– Iragazgaizte-obrak hasi aurretiko baldintzak.

Sasieta Mankomunitateak obraren zuzendaritza izendatu beharko du, obraren eraikitzailearen menpekotasunik ez duena.

Halaber, zabortegia iragazgaizteko geosintetikoen instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrolaz arduratuko den eta sustatzailearen eta eraikitzailearen mende ez dagoen enpresa izendatu

beharko du. Enpresa hori izango da ebazpen honetako D.2.2 atalean ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko arduraduna.

Obrak hasi aurretik, Sasieta Mankomunitateak hala zuzendaritza teknikoaren nola iragazgaizterako geosintetikoen instalazioaren kalitatea bermatzeko kontrola egingo duen enpresa arduradunaren izendapenaren berri eman beharko dio ingurumen organoari.

D.2.2.– Zabortegia iragazgaizteko obrak burutzeko baldintzak eta eskakizunak.

a) Isuri-ontziaren iragazgaiztearen sekuentzia honakoa izango da (goitik behera):

– Lixibiatuen geruza iragazlea. Material pikordun naturalaren geruzaz osatuta egon daiteke (lehentasunez, legar edo harearen tamainako bigarren mailako alez), sastatzearen aurkako geozuntzaren bidez azpiko geomintzaz bereizia, eta gainetik iragazki-geruzaren bidez, edo drainatzaile-geokonposatuaren bidez, edo segida baten bidez: sastatzearen aurkako geozuntza – geosarea – iragazki eginkizuna duen geozuntza. Nolanahi ere, geruza iragazle horren igorgarritasuna drainatzearen luzeraren, drainatzearen isurialdearen eta hondakinen eroankortasun hidrauliko asearen arabera kalkulatuko da. Horrela, ezarritako geruzaren igorgarritasunaren segurtasun-faktorea (FS) (20koa izango da kalkulatutako igorgarritasunarekiko, eta geruza horren barruan lodiera aseak geruzaren lodiera edo 0,30 m ez du gainditukо; txikiena den neurria, hain zuzen ere. Baldintza hori betetzearen justifikazioa geruza iragazleen iragazkortasunean, hodietaraino duten isurialdean eta luzeran eta hondakinen masaren batez besteko iragazkortasunean oinarrituko da. Geruza iragazle horien oinarriak gutxienez % 2ko isurialdea izango du lixibiatuak biltzeko hodien aldera.

– 2 mm lodi den dentsitate altuko polietilenozko (HDPE) geomintza.

– Hesi geologiko artifiziala 0,60 m-ko lodiera eta (10-9 m/s-ko iragazkortasuna duen geruza mineral trinkotuaz osatuta egongo da, 0,15 m-ko 4 geruzaren bidez eraikia. Aurrekoak bezalako babesa eskainiz gero, txandaka bentonitazko geokonposatua (esaterako, ezpondaren eremuetan) edo hondakin trinkotuak erabili ahal izango dira egungo zabortegiak okupatutako eremuetan.

– 0,50 m lodi den erregularizazio-geruza, Proctor Aldatua entseguaren gehienezko dentsitatearen % 95era trinkotutako hondakin hautatuaz osatua.

b) Aurreikusi beharrekoa da jada jarritako hondakin-masaren gainean kokatu beharreko zabortegiaren iragazgaizteak asentatzeak jasatea, horien degradazioren ondorioz eta gainean utzi beharreko hondakinen pisuaren ondorioz. Ondorioz, entseguetan oinarrituta, utzitako hondakinen eta iragazgaiztean erabili beharreko materialen deformagarritasuna zehaztu beharko da, eta zabortegiaren oinarriaren iragazgaiztearen formaren diseinuak asentu horiei lotutako deformazio bat jasango duen kalkuluen bidez justifikatu beharko da, ontziaren erabilera-epea eta itxi ondorengo 30 urteak kontuan hartuta. Azkenik, asentatze/deformazioen kontrolerako plana diseinatuko da, egindako aurreikuspenak betetzen diren egiaztatzeko. Plan horrek erabili beharreko kontrol-metodoak, kontrol-lekuak, neurketen maiztasuna, neurketa-prozedurak eta egindako aurreikuspenak betetzearen egiaztapen-prozedura zehaztu beharko ditu.

c) Zabortegiaren egonkortasunari buruzko azterlan bat egingo da, balizko hausturak analizatzen dituena, bai hondakin-masaren bidez, bai iragazgaiztea osatzen duten geruzen bidez, bai hondakinen eta zimendu-lurraren bidez. Material desberdinetarako erabilitako parametro geoteknikoak ahal bada *in situ* egindako entseguetatik eskuratuko dira. Irristaduraren aurrean, segurtasun-faktoreak (FS) honelakoa izan behar du:

– Egoera normalean: FS (1,50.

– Ustekabeko egoeran (drainatze-sistemaren akatsa): FS (1,30.

Analizatutako egoerak bat etorri behar du aurkeztutako zabortegi-diseinuarekin.

Nolanahi ere, aurretik egindako egonkortasunari buruzko azterlanen kopia bat (aurkeztutakoa horietako baten ondorioen kopia baino ez da), eta dauden azterlan geologiko eta geoteknikoen kopia bat aurkeztuko da.

d) Ondorengoen justifikazioa aurkeztuko da: isuri-ontzi berriko lixibiatuak drainatzeko geruzaren diseinu hidraulikoa, lixibiatu horiek biltzeko hodi-sarea, gelaxka barruko lixibiatuak ponpatzeko putzua, eta zer erauzte-ponpak betetzen duen lixibiatuen mailak geomintzaren gaineko 0,30 m-ak gainditzen ez dituelako eskakizuna. Halaber, jasan beharko duten hondakinen kargaren aurrean, hodi horien diseinu mekanikoaren justifikazioa aurkeztu beharko da. Justifikazio hori ondorengoetan oinarrituko da: hodien ezaugarriak (barruko eta kanpoko diametroak, irekiduren –zirrikituak edo zulaketak– dimentsioa eta tartea, zimurtasuna, zapalketarekiko erresistentzia eta abar), jasango dituen hondakinen karga, zuloaren dimentsioak, legarren porositatea, lixibiatuak erauzteko ponparen ezaugarriak, hodi eragilea euskarri duen ezpondaren geometria, ponpaketaren emaria, ponparen piztu/itzali kontsignaren mailak, ponpaketa-zikloen iraupena, goratzearen garaiera, karga galerak eta abar. Ponpaketa-ekipamendua 681/2003 Errege Dekretuaren arabera –681/2003 Errege Dekretua, ekainaren 12koa, lantokian atmosfera leherkorretatik eratorritako arriskuen eraginpean dauden langileen osasuna eta segurtasuna babesteari buruzkoa– diseinatuko eta erabiliko da.

e) Ontzia prestatzeko eta zabortegia iragazgaizteko lanak burutzen diren bitartean proiektuan funtsezko aldaketak ekar ditzakeen aldaketarik eginez gero, ingurumen-organo honi jakinaraziko zaio balorazioa egin dezan, eta hala badagokio, burutu aurretik onar dezan.

D.2.3.– Sustatzailearen betebeharrak zabortegiaren gelaxka bakoitza eraikitzeko obrak amaitu ondoren.

Zabortegiaren gelaxka bakoitzaren eraikuntza bukatu ondoren, obraren zuzendariak eraikitzea ebazpen honek ezarritako baldintza eta eskakizunei egokituta eta ebazpenaren oinarri diren agiri teknikoak beteta gauzatu dela egiaztatu beharko du. Egiaztapena egiteko, obraren zuzendariak sinatutako zabortegiaren gelaxka eraikitzeko obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko du, ondorengo agiriekin batera:

– Eraikitzeko proiektua («as built»), dagokion elkargo ofizial profesionalak oniritzia emanda duela. Plano-jokoa eta obra-fasean egindako aldaketek ebazpen honetan eta ebazpenaren oinarri diren agirietan ezarritako baldintza eta eskakizunei dagokienez segurtasun-murrizketa ekartzen ez dutela adierazten duen justifikazioa. Halaber, obra bukatutakoan ezin ikusi diren elementuen eta horien ezaugarrien argazki-erreportajea egin beharko du, xehetasunen ikuspegiak eta planoan duten kokalekua azalduz, ikuspegi panoramiko orokor gisa.

– Iragazgaizte-segidaren geomintzaren gaineko azaleraren plano topografiko bat, UTM-ETRS98 koordenatuetan eta kota absolutuetan.

– Eraikuntza-kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko programaren emaitzak. Programa horrek barne hartuko ditu eginiko lanak deskribatzen dituen memoria, emaitzak eta ondorioak laburbiltzen dituzten taulak barne; horrez gain, esparruko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak jasotzen dituzten eranskinak (azken horien txosten osoak hartuko dira) eta laginketa-puntuen kokapena plano takimetrikoan.

Agiri horiek ingurumen-organoari aurkeztuko zaizkio, onar ditzan. Aurkeztutako agiriak egokiak direla ziurtatu eta egiaztatzeko bisita egin ondoren, ingurumen-organoak alderdi horien inguruko ziurtagiria egingo du.

D.3.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

D.3.1.– Hondakinak hartu eta ikuskatzeko baldintzak eta kontrolak.

49/2009 Dekretuaren II. eranskinean –49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena– xedatutakoaren arabera, hondakin batek ispilu-sarrera badu hondakinen Europako zerrendan (HEZ), HEZ kodea esleitzeko nahitaez haren arriskugarritasunaren ezaugarriak zehaztu beharko dira, Europako Batzordearen 1991ko abenduaren 12ko 91/689/CEE Zuzentarauak, hondakin arriskutsuei buruzkoak, III. eranskinean xedatzen duenarekin bat etorriz. Onartu beharreko ispilu-sarrerako hondakin guztien arriskugarritasun ezaugarria izan behar da. Ispilu-sarreradun hondakin deitzen zaie, jatorri bera izanik, HEZ zerrendako kodea hondakina arriskutsua izatearen edo ez izatearen araberakoa duten hondakinei.

Hondakinak deuseztatu daitezen zabortegian utzi ahal izango dira, baldin eta aurretiazko tratamendua jaso badute edo horien baliotzea teknika, ekonomia edo ingurumenaren aldetik bideragarria ez dela behar bezala justifikatzen bada. Ondorioz, zabortegira iritsi eta baliotu daitezkeen hondakinak bereizteko instalazioan bereizi eta dagokien banakako edukiontzietan gorde behar dira, helburu horretarako baliotzeko gune baimendura eraman arte. Horretarako, gaur egungo egoera kontuan izanda, baliotu daitezkeen hondakinak hauek dira: papera eta kartoia, metalak, obra-hondakinak, beira, zura, plastikozko eta metalezko ontziak, 1.400 mm baino kanpo-diametro txikiagoa duten erabiltzen ez diren pneumatikoak, bizikletenak izan ezik. Zerrenda handitu egingo da, hondakin berriak baliotzeko kudeatzaile baimenduak sortzen diren neurrian.

Hiri-hondakinak isuri aurretik, tratamendu bat izango dute, teknika, ekonomia edo ingurumenaren aldetik baliotu daitezkeen frakzioak horietatik bereiztearren, hala nola papera eta kartoia, metal ferriko eta ez-ferrikoak, zura, ontziak.

Halaber, ez da onartuko tresnak eta altzariak isurtzea, horiek baliotzeko instalazioak daudelako; berdin egingo da obra txikietako hondakin, utzitako ibilgailu eta abere hilekin ere.

10 eta 17. epigrafeetako hondakinak, I. eranskinean identifikatuak, ebazpen honetako D.2 eta D.4 ataletan zehaztutako hondakinaren eraikuntza-erabileretarako baino ez dira erabiliko.

Hiri-hondakinak estaltzeko material gisa, ezin baliotu daitezkeen hondakinak edo orain artekoak ez diren arriskuak ez dituztenak erabiliko dira. Zentzu horretan, altzairugintzako zepak (baliotuak eta baliotu gabeak) xede horrekin erabiltzeari utziko zaio, eta estaltzeko beste hondakin batzuk erabiliko dira; besteak beste, hondakin ez-arriskutsuentzako zabortegietan onartutako lurzoru kutsatuak, eraikuntza- eta eraiste-hondakinen baliotze-instalazioetako hondakinak, bai eta deskutsatutako ibilgailuen zatitze-instalazioetakoak ere. Altzairugintzako zepak isuri-ontziaren barneko bideak eraikitzeko baino ez dira erabiliko, eta haien ezaugarriak horretarako aukera emanez gero, lixibiatuen geruza drainatzaileak osatzeko.

Zabortegian ezabatu daitezen onartutako hondakin ez-arriskutsuak, hondakinak baliotzeko eta ezabatzeko eragiketak eta Hondakinen Europako Zerrenda argitaratzen duen otsailaren 8ko MAM/304/2002 Aginduaren bidez argitaratutako Hondakinen Europako Zerrendaren arabera sailkatuta daude eta ebazpen honetako I.a eta I.b eranskinetan adierazitakoak dira. Ondorengo baldintzak dituzten hondakinak ez dira inolaz ere onartuko:

1.– 50 gradu zentigradutik gorako hondakinak.

2.– % 65eko hezetasunetik gorako hondakinak.

Batzordeak 2002ko abenduaren 19an hartutako Erabakian hondakin ez-arriskutsuen zabortegietan hondakinak onartzeko zehaztutako irizpideak bete beharko dituzte hondakin ez-arriskutsu horiek. Erabaki horren bidez ezarri ziren zabortegietan hondakinak onartzeko hondakin horiek bete behar dituzten irizpideak eta prozedurak, hondakinak isurtzeari buruzko 1999/31/EEE Zuzentarauko 16. artikuluari eta II. eranskinari eta hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuari jarraituz.

I.a eranskineko hondakinak aurrez tratatutakoak baino ez dira, edo nahiz eta aurrez tratamendu bat ez ezarri, haiek baliotzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria ez dela ziurtatuta duten hondakinak.

I.b eranskinean zerrendatutako hondakinei dagokienez, izendapen generikoko hondakinak, ispilu-sarreradun hondakinak eta EAEko hondakinak kudeatzeko azpiegituran balioztatu litezkeen hondakinak dira. Dekretu horren II. eranskinaren 4.2 atalean zehaztutakoaren arabera probak egiteko beharrari edo beharrik ezari kalte egin gabe, I.b eranskinean zerrendatutako hondakinak Organo honek onartu beharko ditu aurrez hondakin mota eta ekoizle bakoitzarentzat.

I.b eranskineko izendapen generikoko hondakinak ez daude beste kategoria batean zehaztuta, eta haien kodea «99» zenbakiarekin amaitzen da.

Halaber, EAEko hondakinak kudeatzeko azpiegituran balioztatu litezkeen hondakinak identifikatzen dituzten kodeak ere txertatu dira; hortaz, ezingo dira kudeatu, aurrez ekoizleak edo ezabatzeaz arduratuko den kudeatzaileak Organo honi dokumentu bidez ez badio egiaztatzen ezinezkoa dela haiek balioztatzea edo berreskuratzea I.a eranskinerako termino berdinetan. Horretarako, Sasieta Mankomunitateak karakterizazioaren emaitzekin batera egindako onespen-agiria bidali beharko du Ingurumen Sailburuordetzara, agiri hori balioetsi dezan. Ingurumen-organoak balioesteko onespen-agiri bat aurkeztu eta hamar egunera, ingurumen-organoak ez badu espresuki ezer adierazi, Sasieta Mankomunitateak onespen- eta proposatutako hondakinaren kudeaketa-prozesuarekin jarraitu ahal izango du.

Nolanahi ere, hondakinak onartu ahal izateko, lixibiatze-saiakuntzak egin beharko dira, UNE-EN 12457-4 arauaren arabera «Hondakinak karakterizatzea. Lixibiatzea. Hondakin pikortsuak eta lohiak lixibiatzeko adostasun-saiakuntza. 4. zatia: 10 l/kg-ko likido/solido erlazioa duen etapa baten lotekako saiakuntza, 10 mm-tik beherako partikula-tamaina duten materialetarako (tamaina-txikitzea izan edo ez)».

Parametro jakin batzuetan zehaztutako mugak gaindituz gero, NEN 7343 arau nederlandarraren araberako perkolazio-saiakuntzak onartu ahal izango dira. Nolanahi ere, entseguak otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan horri buruz zehaztutakoari jarraituz egin behar dira. Dekretu horren bitartez, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen da. Agiri horiek Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

Sasieta Mankomunitateak behar bezala beteta bidali beharko dizkio ingurumen-organoari hondakinen onespen-agiriak eta jarraipen- eta kontrol-agiriak, 49/2009 Dekretuan, otsailaren 24koan, 23. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Dekretu horren bitartez, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen da.

Sasieta Mankomunitateak isuritako edo baimendutako hondakinen balioztatzaileari igorritako hondakinen laburpena urtero bidali beharko dio ingurumen-organoari formatu elektronikoan, honako hauek adieraziz:

– Hondakinaren sailkapena, hondakinak baliotzeko eta ezabatzeko eragiketak eta Hondakinen Europako Zerrenda argitaratzen dituen otsailaren 8ko MAM/304/2002 Aginduaren bidez argitaratutako Hondakinen Europako Zerrendaren arabera.

– Hondakinaren kopurua (tonatan).

– Hondakinaren sortzailea.

– Helmugako hondakinen kudeatzailea.

Onargarriak ez diren hondakinak biltegiratzeko gune bat izango da, hormigoizko oinarria eta urak biltzekoa dituena.

Zabortegiak perimetro-itxitura izan beharko du, ustiapenaren kanpoko langileak sar ez daitezen. Plastiko arinak eta partikulatutako materiala sakabanatzea murriztuko duen elementuaren bidez osatuko da itxitura.

Instalazioak sarrera bakarra izango du, eta sarrerak langa kanadarra izango du, ganadua eta bestelako animaliak barrura sar daitezen eragozteko.

D.3.2.– Lixibiatuen sorkuntza murrizteko ustiapenaren baldintzak.

a) 49/2009 Dekretuaren I. eranskineko bigarren atalean zehaztutakoa betetze aldera, zabortegia ustiatzean, zuzenean euri-uren eraginpean dagoen gehienezko hondakin-azalera ez da inoiz izango 10.000 m^2 baino handiagoa.

b) Ustiaketa-planaren moldaketa bat aurkeztuko da eta hauek jasoko ditu: isurketa-gelaxken mugaketa, gelaxken iragazgaiztutako azaleraren topografia, plana betetzeko agindua, lixibiatuen drainatzeen trazadura, gas-tximinien kokapena, gelaxken barrualdera sartzeko barne-bideak, azaleko urak husteko dituen perimetro-arekak, gelaxken ontziaren iragazgaiztu beharreko azalerak eta behin betiko edo aldi baterako zigilatu beharreko azken topografiara iritsi diren eremuak, gelaxken burutze-faseak burutzeko kronograma eta eraikitzeko xehetasunak. Horrekin batera, dagokion eraikitzeko proiektua gehitu beharko da: memoria, kalkulu justifikatzaileak dituzten eranskinak, planoak, baldintza teknikoen agiria, aurrekontua, eraikitzeko proiektuaren segurtasun- eta osasun-proiektua, geosintetikoen eta trinkotutako geruza mineralen eraikitze-kalitatearen berme-plana.

c) Zabortegiaren azken gainazalaren inguruan perimetro-areka bat instalatu beharko da, 500 urteko birgertatze-aldiari dagozkion uhaldiek zabortegiari eragin ez diezaioten. Ustiaketan zehar, iragazgaiztutako gelaxkak inguratuko dituzten eta dagozkien uhaldiak hustea ahalbidetuko duten aldi baterako perimetro-kanalak instalatuko dira, gutxienez 10 urteko birgertatze-aldiari begira. Zabortegiaren azken zigilatzearen gainazalaren gainean arekak eraikiko dira, zigilatzearen gainean sortzen diren ur garbiak perimetro-kanaletara husteko. Areka horiek gutxienez 50 urteko birgertatze-aldiari dagozkion uhaldiak husteko diseinatuko dira.

d) Zabortegiko gelaxka baten zigilatzea ez da 90 egun baino gehiagoko epean abiatuko, aurreikusitako azken kotetara iristen den unetik kontatzen hasita. Zigilatze hau aldi baterako zigilatzea izango da, azaleraren gainean proiektuak ondorengo faseetan hondakinak uztea aurreikusten duenean, edo behin betiko zigilatzea izango da, aipatu azaleraren gainean akaberako zigilatzea ezarri behar denean. Kanpoko arrazoiak direla eta (meteorologikoak, materialaren erabilgarritasuna, eta abar) azken zigilatzea epe horren barruan hastea ezinezkoa bada, aldi baterako zigilatzea ezarriko da, trinkotutako lur garbiez edo geomintz batez osatua, iragazketa murriztuko duena eta perimetro-kanaletara zuzenduko diren ur garbiez osatutako gainazaleko jariatzea osatzea ahalbidetuko duena. Nolanahi ere, behin betiko zigilatzea 9 hilabete baino lehen abiatuko da eta 12 hilabete baino lehen bukatuko da, hondakinak aurreikusitako gelaxkaren azken kotetara iristen diren unetik kontatzen hasita.

D.3.3.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

D.3.3.1.– Baldintza orokorrak.

Hondakin ez-arriskutsuen Sasieta Mankomunitateko zabortegia ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren. Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatuko eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

D.3.3.2.– Fokuak identifikatzea.

Sustatzaileak agiri batean aurkeztuko du biogasaren errekuntza-instalazioari buruzko informazio guztia, eta gutxienez datu hauek jasoko ditu:

1) Foku bakoitzaren izena.

2) Foku bakoitzaren UTM koordenatuak.

3) Lotutako prozesua edo prozesuak.

4) 34/2007 legearen –34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzkoa– eta 100/2011 Errege Dekretuaren –100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen duena eta bera ezartzeko oinarrizko xedapenak finkatzen dituena– araberako katalogazioa.

5) Biogasari dagokionez, erreko den gasaren konposizioari buruzko azterlan bat, errekuntza-parametroak, kontzentrazioa eta abar adierazten dituena.

6) Isuritako kutsatzaileen emaria (gehienezkoa eta batez bestekoa), tenperatura eta fluxu-abiadura, ezaugarriak eta kantitatea. Jarduerak sortutako isuri bakoitzaren emariaren eta konposizioaren balioespenak arloan indarrean den araudia betetzen dela egiaztatzeko moduko unitateetan adierazi beharko dira.

7) Erabilitako laginketa- eta analisi-metodoa, maiztasuna eta lortutako emaitzen fidagarritasun-maila adieraziz egindako karakterizazioak, kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek atmosfera kutsa dezakeen instalazioari buruz egindako ikuskatze-txostenaren bidez.

8) Huste-sistemen ezaugarriak:

– Zorutik tximiniaren ahorainoko altuera.

– Tximiniaren barruko diametroa.

– Laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapena eta ezaugarriak, gas-fluxuek laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziak adieraziz; hau da, L1 eta L2 parametroak, industria-jatorriko

kutsadura atmosferikoren prebentzioari eta leheneratzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoari erreferentzia egiten diotenak. Neurketa-puntuetara sartzeko plataformen ezaugarriak ere jasoko dira.

9) Foku bakoitza eta guztiak zehazten dituen instalazioaren planoa.

Jarduerak putzu bertikalen desgasifikazio-sistema bat eta zuzi bat ere baditu, eta horiei buruzko urteko jardun-denbora aurkeztu beharko da.

Gainera, sustatzaileak putzuetako eta bildutako gasen karakterizazio-analisi bat aurkeztuko du, kanpo-erakunde batek egindakoa.

Jardueran sortutako isuri barreiatuak kamioien ontzi-aldaketakoak eta zabortegiko hondakinak maneiatzekoak dira.

D.3.3.3.– Isurpenen muga-balioak.

a) Sasieta Mankomunitatearen biogas erregaiaren instalazioko tximinia ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte muga-balio hauek gainditukо:

Substantziak	Isurketarako muga-balioak
Partikula solidoak (mg/Nm^3)	5
NOx (mg/Nm^3)	200
CO (mg/Nm^3)	80
SO_2 (mg/Nm^3)	300
HCl (mg/Nm^3)	30
HF (mg/Nm^3)	5
H_2S (mg/Nm^3)	5

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 ºK-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an, muga-balioa gehienez % 25 gainditzea onartuko da. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei dagokienez (KOG gisa neurtuak), ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu eta ordubeteko neurketetako batek ere isurtzeko muga-balioak 1,5eko faktoretik gora gainditzen ez baditu.

c) Biogasa ezabatzeko zuzian 1.000-1.200 ºC-ko tenperatura hartuko da, gutxienez 0,3 segundoan (egonaldia), eta turbulentzia egokiari eutsiz.

d) Segurtasuna dela eta, instalazioaren jabetzaren mugan metano gasaren kontzentrazioa ez da % 5 baino handiagoa izango, ezta % 1,25 baino handiagoa ere instalazioaren espazio itxietan, kontrol-sistemen edo gasa berreskuratzeko osagaien kasuan izan ezik.

D.3.3.4.– Gasak hartu eta kanporatzeko sistemak.

Tximiniek Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Agindua, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoan ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntuetara sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusten diren zuloen kokapen eta ezaugarriei dagokienez, egokitu behar dira laginak hartzeko gunetik fluxuaren noranzkoaren eta kontrako noranzkoaren arabera (L1 eta L2 parametroak) neurketa-gunea baino lehenago dagoen fluxu gaseosoko edozein perturbaziora arteko distantziak, 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean ezarritakoaren arabera.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

Zabortegian sortutako gasak erauzketa bertikal eta horizontaleko sare batek bilduko ditu ustiapeneko fase bakoitzean, eta erregulazio eta neurketarako estazioraino (ERM) eramango dira.

Zabortegia ustiatzean sortutako gasen erauzketa dentsitate altuko polietilenozko drainatze-tximinien bidez egingo da, legarrezko inguratzailearekin artekatua. Putzuaren eragin-erradioa 25 metrokoa denez, zabortegiaren azalera osoa hartuko du, bertara airerik ez sartzeko, eta horrela, zabortegiko zigilatu gabeko eremuetatik barrena atmosferara isuri barreiatuak saihesteko.

Biltzeko sistemak 125 mm-ko diametroko HDPEzko hodi artekatua izango du, termozigilatua, eta polietilenozko hodiaren eta zundaketa-hormaren arteko zuloa legarrez beteko da. Hodiak fase edo terraza baten isurketa-masa gainditu ondoren, tarte horizontalari ekingo zaio, HDPEzko PN10 ukondo batez osatutakoa, sare bertikala horizontalarekin lotzen duena. Sare horizontala ere HDPEzko PN10 hodi artekatu batez osatua egongo da, fase bakoitzeko hondakinak estaltzeko geruzan 50 x 50eko legarrezko zanga batean sartua.

Zabortegia garaieran bete ahala, putzu bakoitza biltzeko kanpai metaliko baten bidez ixten da. Kanpaiak erregistratu eta ikuskatzeko estalki bat du goialdean, erdian laginak hartzeko irekidura bat, eta azpipresioa doitu eta gasaren kalitatea neurtzeko erregulazio-balbula bat dituena.

Bildu eta erregulazio- eta neurketa-estazioraino (ERM) eramandako gasa, aldi berean, desgasifikazio-instalazioraino eramaten da.

Isuri barreiatuak murrizteko, jarduera hauek gauzatuko dira:

– Ahal den neurrian, partikula solidoen eta hautsaren isuriak sortzea saihestuko da ibilgailuen sarrera-irteeretan, zamalanetan eta hondakinak hedatzean.

– Irekitako gainazala (isuriarena) minimizatuko da, eta gainerakoa estaltzeko lurrekin edo polietileno xaflekin estaliko dira.

– Ibilgailuen gehienezko abiadura 20 km/h-ra mugatu behar da, eta hondakinak garraiatzeko kamioi edo edukiontzi itxiak edo big-bag zakuak erabili behar dira.

D.3.3.5.– Biozidak erabiltzeko baldintzak.

Zabortegiaren instalazioetan bektore biologikoen kontrolerako biozidak erabiliz gero, Osasun eta Kontsumo Ministerioko Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren bioziden erregistro ofizialean biltzen diren produktuak izan behar dute.

Biozidak erabiltzearen arloan aplikatzekoa den arautegiaren kaltetan izan gabe, horien aplikazioa beharrezko gutxienekora mugatuko da.

Produktu horiek erabiltzen hasi aurretik, Ingurumen Sailburuordetzara bidali behar dira erabiltzea aurreikusten den biosanitarioen segurtasun-fitxa teknikoak. Halaber, hala badagokio, zerbitzu biozidez arduratzen den enpresari jakinarazi beharko zaio.

D.3.4.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

D.3.4.1.– Isurien sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: hondakin ez-arriskutsuen zabortegia.

Jarduera-taldea: 0-Zerbitzuak.

EJSN: 92150. Zaborrak eta hondakinak errausteko eta ezabatzeko zerbitzua.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isuriaren jatorria	Ingurune hartzailea
1	Lixibiatuak	Isuri-ontzian utzitako materiala.	Gipuzkoako Uren kolektorea (EDAR Gaikao)

Organo honen aurrean aurkeztu beharko da lixibiatuak tratatzeko eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren kolektorera isurketen erregelamenduak –2005eko urtarrilaren 24an argitaratua– barnean hartutako isurketen balioak betetzeko –bereziki, eroankortasunari eta N-NH4 eta OEK parametroei dagokienean– inplementatu beharreko instalazioak barnean hartuko dituen proiektu bat.

Halaber, honako hauei lotutako informazioa ere zehaztu beharko da: lurpeko uren kontrol-sarea; gurpilak garbitzeko putzuko uren, metatutakoaren kubetako uren eta kutsadura ekar dezaketen beste euri-ur batzuen tratamendua; beste ur beltzik ba ote dagoen, eta efluente bakoitzari buruzko informazio orokorra (kudeaketa, isurketa-puntuen UTM koordenatuak, efluente bakoitzaren isurien gehienezko emaria eta bolumena, etab.).

D.3.4.3.– Isurpenen muga-balioak.

D.3.4.1 puntuan zehaztutakoaren arabera inplementatu beharreko instalazioak isurpenen muga-balio hauek betetzeko aukera eman behar du. Muga-balio horiek 2005eko urtarrilaren 24an argitaratutako Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren kolektorerako isurketen erregelamenduan oinarrituta daude.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak	Unitateak
pH	5,5-9,5	
Solido esekiak	600	mg/l
Sol. jalkikorrak	20	ml/l
Sol. lodiak	Ez dago	-
O_5EB	500	mg/l
OEK	4 aldiz O_5EB	mg/l
Tenperatura	45	ºC

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak	Unitateak
Kolorea	Hautemanezina 1:50eko diluzioan	-
Aluminioa	20	mg/l
Artsenikoa	0,1	mg/l
Barioa	10	mg/l
Kadmioa	0,1	mg/l
Kromo VI	0,3	mg/l
Kromoa guztira	1	mg/l
Burdina	20	mg/l
Manganesoa	2	mg/l
Nikela	2	mg/l
Merkurioa	0,01	mg/l
Beruna	0,5	mg/l
Selenioa	0,1	mg/l
Eztainua	2	mg/l
Kobrea	1	mg/l
Zinka	3	mg/l
AOX	2	mg/l
Zilarra	0,5	mg/l
Guztizko zianuroak	0,5 (destilazioan)	mg/l
Zianuro askeak	0,1	mg/l
Zianatoak	2	mg/l
Kloruroak	1.600	mg/l
Kloro askea	0,5	mg/l
Sulfuroak	1	mg/l
Sulfitoak	5	mg/l
Sulfatoak	1.000	mg/l
Fluoruroak	10	mg/l
Guztizko fosforoa	15	mg/l
Nitrogenoa guztira	75	mg/l
Nitrogeno amoniakala	40	mg/l
Olioak eta koipeak	100	mg/l
Fenolak	5	mg/l
Detergenteak	10	mg/l
Toxikotasuna	25	ekitox./m^3
Eroankortasuna	5.000	us/cm

D.3.4.4.– Arazketa- eta ebakuazio-instalazioak.

Kontrol-kutxeta bat jarriko da hondakin-ur mota baimendu bakoitzarentzako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezko ezaugarriak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

Ondorengo kontrolerako gailuak izango dira gutxienez:

– Emari-neurgailua, isuri-ontziaren eta lixibiatuak tratatzeko instalazioaren artean.

– Piezometroak.

– Estazio meteorologikoa.

– Emari-neurgailua edo ordu-kontagailu bidez eta abar neurtzeko sistema, zabortegi zaharreko lixibiatuak jasotzeko sarean (zigilatutako gelaxkak) eta emari-neurgailua, pH-neurgailua eta konduktibitate-neurgailua gelaxka berrien lixibiatuetarako.

Emari-neurgailuek, pH-neurgailuek, konduktibitate-neurgailuek eta plubiometroak erregistratutako datuak 10 minuturo gordeko ditu formatu elektronikoan.

D.3.5.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Fabrikan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Berariaz debekatuta dago sortutako mota desberdinetako hondakinak elkarren artean edo beste hondakin edo efluente batzuekin nahastea; jatorrian bereizi behar dira haiek, eta behar diren biltze- eta biltegiratze-bitartekoak jarri behar dira haiek ez daitezen nahasi.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako balioztatzegune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak deuseztatu ahal izango dira, baldin eta horiek balioztatzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balioa emateko beste modu material edo energetikoen aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko instalazio baimenduak baldin badaude Euskal Autonomia Erkidegoan, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakinen azken norakoa zabortegi baimenduan ezabatzea dela aurreikusten baldin bada, orduan hondakin horiek ezaugarrituko dira, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiak, hondakinak hondakindegietan hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituenak, xedatutakoari jarraiki, eta otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuak, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenak, ezarritako jarraibideen arabera.

Instalazioan sortutako hondakinen kantitatea, ebazpen honetan jasotakoa, orientagarria da soilik, jardueraren ekoizpen-gorabeherak eta ekoizpenaren eta hondakin-sortzearen arteko erlazioa kontuan hartu behar dira. Datu horiek jardueraren adierazleetan ageri dira. 16/2002 Legearen 10. artikuluan (2.d atalean) ezarritakoaren kalterik gabe, instalazioko aldaketak kalifikatzeko, sortutako hondakinen kopurua handitzeak aurretik ezarritako biltegiratze- eta ontziratze-baldintzak aldatzea dakarrenean soilik eskatu beharko da baimena egokitzea.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira ezbeharrean gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko zaio gertatutakoa ingurumen-organoari.

D.3.5.1.– Hondakin arriskutsuak.

Hondakin arriskutsuak sortzeko prozesua hau da:

ZERBITZU OROKORRAK.

Identifikazioa: Q2000539C/2000003860/B0019.

Prozesuaren kodea: B0019.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

○ Hondakina: Erabilitako olioa.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A920//B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.000 kg.

Mantentze-lan orokorrak azpiprozesuan sortzen dira, makinen olioak birjartzeko lanetan.

○ Hondakina: «Fluoreszenteak eta lanpara ultramorea».

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H14//A920//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Mantentze-lan orokorrak azpiprozesuan sortzen dira, lanpara fluoreszenteak birjartzeko lanetan.

○ Hondakina: «Berun azidozko bateria erabiliak».

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8//A920//B0019.

– EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Mantentze-lan orokorrak azpiprozesuan sortzen dira, bateriak birjartzeko lanetan.

○ Hondakina: «Metalezko ontzi hutsak».

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A920//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa (kg).

Ontziak biltzeko azpiprozesuan sortzen dira.

○ Hondakina: «Plastikozko ontzi hutsak».

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A920//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Ontziak biltzeko azpiprozesuan sortzen dira.

○ Hondakina: «Olio-iragazkiak».

– Hondakinaren kodea: Q9//R13//S35//C51//H5//A920//B0019.

– EHZ: 160107.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Xurgatzaileak biltzeko azpiprozesuan sortzen dira.

○ Hondakina: «Erregai-iragazkiak».

– Hondakinaren kodea: Q9//R13//S35//C51//H5//A920//B0019.

– EHZ: 160121.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Xurgatzaileak biltzeko azpiprozesuan sortzen dira.

○ Hondakina: «Presiozko ontziak (espraiak, aerosolak)».

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S12/36//C41//H3B//A920//B9017.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Ontziak biltzeko azpiprozesuan sortzen dira.

○ Hondakina: «Botoi-pilak».

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C16//H6//A920//B9107.

– EHZ: 160603.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Mantentze-lan orokorren azpiprozesuan sortzen dira.

○ Hondakina: «Gai arriskutsuekin kutsatutako materialak (trapuak, eskularruak eta xurgatzaileak)».

– Hondakinaren kodea: Q5//D15// S40//C41/51//H5//A920//B9107.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: unean unekoa.

Materialak eta xurgatzaileak biltzeko azpiprozesuan sortzen dira.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereiziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu zezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzkoa, betearazteko oinarrizko araudia onartzen du Dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak ezin izango dira sei hilabetetik gora biltegiratu.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori ingurumen-organoari bidaliko zaio hondakina lehenengoz atera aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, horretarako egin beharreko jakinarazpena eginda dagoela, araudian zehaztutako aurretiaz, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko du jatorritik helmugaraino. Sasieta Mankomunitateak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Sasieta Mankomunitateak industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira. Halaber, pilen eta metagailuen hondakinek bete beharko dute otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuak, pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoak, xedatutakoa. Baimendutako kudeatzailearen onarpen-agiria izateko, eraman aurretiazko jakinarazpena egiteko eta kontrolaren eta jarraipenaren agiria betetzeko betebeharretik salbu egongo dira kudeaketa-sistema integratuko kudeaketa-azpiegituretara eramaten diren hondakinak, bai eta toki-erakundeei ematen zaizkienak gaika bildutako udal-hondakinekin eta horien parekoak direnekin batera kudea ditzaten, baldin eta dagokion toki-erakundeak eman izana egiaztatzen badu. Toki-erakundeei eman-izanaren egiaztagiriak gutxienez bost urtez gorde beharko dira. Edonola ere, atal honen l) puntuan definitutako hondakinak sortzeari buruzko kontrol-erregistroak sortutako ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinen kopuruak jasoko ditu.

j) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Sasieta Mankomunitateak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik, edo desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

k) Sasieta Mankomunitateak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak baditu, nahitaez bete beharko ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen 2006ko otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du. Sasieta Mankomunitateak PKB duten gailuak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

l) Aurreko e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

m) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Sasieta Mankomunitateak 108/1991 Errege Dekretuan, amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzkoan (3. artikulua) ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

n) Hondakin arriskutsu bakoitzari dagokion izendapena eta kodifikazioa ezartzen zaio, hondakin bakoitzaren egoera eta ezaugarrien arabera, baimena izapidetzean jasotako informazioa oinarri hartuta. Kode batzuek aldaketaren bat izan badezakete ere, beste batzuk, oinarrizkoak direlako, aldatu gabe utzi behar dira ekoizpen-jardueran. Hondakina zein motatakoa den eta zein osagai arriskutsu dituen (ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota) definitzen dute, bai eta hondakina zein jarduerak eta zein prozesuk sortzen duen ere (uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren I. eranskinean xehetasunez jasota). Kudeaketa-bideetan hierarkizazioa zuzena dela egiaztatzeko, eta bai Hondakinak Kudeatzeko Europako Estrategian bai Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programan ezarritakoa betetzen dela bermatzeko, hondakin bakoitzaren onarpen-agirietan jasotako informazioa organo honek onartu beharko du, dagokion kudeatzaile baimenduak horretarako eskaria egin ostean. Egiaztatzeak garrantzi berezia izango du, batez ere, berreskurapena edo balioa ematea kudeatzeko eragiketa-kodearen arabera kudeatu diren hondakinen onartze-agirietan lagatze- edo ezabatze-kodeak balioztatzeko eskatzen bada.

D.3.5.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta dagoen
Papera eta kartoia	19 12 01	Hondakinak bereiztea zabortegiaren sarreran
Beira	19 12 05	Hondakinak bereiztea zabortegiaren sarreran
Kimaketa eta lorezaintza	02 01 03	Zerbitzu orokorrak
Plastikoak	19 12 04	Hondakinak bereiztea zabortegiaren sarreran
Hiri-hondakin solidoak	20 03 01	Zerbitzu orokorrak

Urtean sortutako hondakin ez-arriskutsuen kopuruak aurkeztu eta horiek kudeatzeko modua definitu beharko dira.

Aukeraketa- eta aurretratamendu-prozesutik datozen honako hondakin hauek sortu ahal izango dira:

Hondakinaren izena HEZ kodea.

Plastikozko ontziak 15 01 02.

Ontzi metalikoak 15 01 04.

Erabiltzen ez diren pneumatikoak 16 01 03.

Eraikuntza- eta eraiste-hondakinak 17 09 04.

Beira 19 12 05.

Egurra 19 12 07.

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio –hornitzaileari–, erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztatzaile baimendu bati emango zaizkio.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak ebakuatu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta dituela. Agiri horren kopia bidali behar zaio Ingurumen Sailburuordetzari, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Sasieta Mankomunitateak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin, hondakinak zabortegietan utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek jasoko dituena: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodoak eta tokiak, hondakinen sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aipatutako c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

D.3.6.– Lurzorua babesteko baldintzak.

a) Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan, lurzoruan kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituenean ezarritako betebeharrak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenari jarraituz, eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean jasota dauden gomendioak kontuan hartuta, Sasieta Mankomunitateak lurzorua babesteko beharrezko neurri guztiak eta ingurumen-organoak eskatzen dituenak hartu beharko ditu.

Hala ere, arriskuen karakterizazio kualitatiboa adierazte aldera, txosten horretako informazioa osatu beharko da, eta lotuta prebentzio- eta defentsa-neurririk ez duen isurpen-jarduerari lotutako arrisku-iturria adierazi; zehazki, 1481/2001 Errege Dekretuaren I. eranskineko 4. atalean –1481/2001 Errege Dekretua, 2001eko abenduaren 27koa, hondakinak hondakindegian biltegiratuta ezabatzeari buruzkoa– deskribatutako gutxieneko babes-hesirik gabe biltegiratutako hondakinak dituzten eremuak. Haren edukia 49/2009 Dekretuaren I. eranskineko 3.4 atalean zehaztutakoari egokitu beharko zaio –49/2009 Dekretua, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena–.

b) Lurzoruaren eta uren babes-maila balioeste aldera –bereziki, 1481/2001 Errege Dekretuaren I. eranskineko 3. atalean deskribatutako gutxieneko babes-hesirik ez duten eremuetako lurzoruarentzako, lurpeko urentzako eta gainazaleko urentzako arrisku-potentzialari dagokionez–, organo horri bidali beharko zaizkio ingurumenerako arriskuen ebaluazioa –bereziki, kontuan hartuko duena Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren III. tituluaren, II. kapituluko 3. atala (849/1986 Errege Dekretuak, apirilaren 11koak, onartua eta 1315/1992 Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, aldatua, eta haren 2. atalaren arabera, «Uren kontrola eta lixibiatuen kudeaketa») eta urei dagokienez eskuduna den organoak bidalitako txostena.

49/2009 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoaren arabera, arriskuaren ebaluazioa egiteko azterketa bat egingo da, gutxienez barnean hartuko dituena aipatutako eranskinaren 3.4 atalean adierazitako faseak.

c) Lur-mugimenduak eragiten dituzten lanak egiten badira ekoizpen-jarduera duten nahiz ez duten eremuetan, jardueraren sustatzaileak hondeatu behar dituen materialen (lurrak, obra-hondakina, etab.) karakterizazioa egin beharko du, jardun kutsatzaileen ondorioz erasan diren egiaztatze aldera eta, karakterizazio horren emaitzen arabera, horientzako kudeaketa-modu egokiena zehazte aldera. Jarduerarik burutu ez den eremuetan egindako lanetan, ez da beharrezkoa izango karakterizazio hori egitea, baldin eta jarduera-eza behar bezala justifikatuta badago.

Soberan dauden materialak instalazioan bertan berrerabili nahi izanez gero, material horiek otsailaren 4ko 1/2005 Legean –1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa– zehaztutako VIE-B (industria-erabilera) baino balio txikiagoa izan beharko dute, eta lur horien hidrokarburo edukiak ezingo du arriskua eragin. Biltegiratutakoaren soberakinak zabortegian ebakuatu nahi izanez gero, 49/2009 Dekretuan, hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzeari buruzkoan, adierazitakoaren arabera egingo da hondakinen karakterizazioa. Otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako VIE-A balioak baino txikiagoak lortzen dituzten lurrak lur naturaltzat hartuko dira, eta, beraz, ez dute erabilera-mugarik izango.

Halaber, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeko 10. artikuluko 2. paragrafoak ezarritakoaren arabera, jarduera ezartzeko edo zabaltzeko hondeatze-lanetan edo lur-mugitzeetan kutsadura-zantzuak hautematen badira, lan horien arduradun zuzenak horren berri eman beharko dio udalari eta Ingurumen Sailburuordetzari, beharrezkoa izango balitz hartu beharreko neurriak ezar ditzan, 17. artikuluko seigarren paragrafoak ezarritakoa betez.

D.3.7.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak jarriko dira:

a) Beharrezko neurri guztiak ezarriko dira indize akustiko hauek gaindi ez daitezen:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq, 60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB(A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 45 dB(A) ere.

a.2.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq, 60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB(A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 35 dB(A) ere.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du nabarmen handituko sentsibilitate akustiko handiko guneetako zarata-maila.

D.4.– Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia zigilatzeko obrak gauzatzeko baldintzak eta betebeharrak.

a) Zabortegiaren akaberako zigilatzearen segida geruza hauez osatuta egongo da, goitik behera:

– Gainazala belarkien bidez estaltzea. Zabortegiaren zigilatzearen gainean zuhaixkak edo zuhaitzak landatzea, helduak direla haien tamaina eta sustraiak, sakontasuna, mota, kokapena edo ezarritako babesak direla-eta, drainatze-geruzaren, geomintzaren edo zigilatzearen hesi geologiko artifizialaren segurtasunari edo funtzionaltasunari ez eragiteko baldintzapean egongo da; eta irristaduraren aurrean landaketak ez du segurtasun-faktorea 1,5etik behera murriztu beharko.

– Gutxienez 0,15 metro lodi den landare-lurzoruzko geruza.

– Gutxienez 0,60 metro lodi den estaldura-lurzoruzko geruza.

– Iragazketako ur garbien geruza drainatzailea. Ale formako material natural baten geruzaz osatuta egon daiteke (legarrak edo hareak), azpitik sastatzearen aurkako geozuntzaren bidez geomintzaz bereizia, eta gainetik iragazki-geruzaren bidez, edo drainatzaile-geokonposatuaren bidez. Nolanahi ere, geruza drainatzaile horren igorgarritasuna drainatze-luzeraren, drainatzearen isurialdearen eta gaineko lurzoruaren estaldura-geruzaren eroankortasun hidrauliko asearen arabera kalkulatuko da. Horrela, ezarritako geruzaren igorgarritasunaren segurtasun-faktorea (FS) (6koa izan dadin kalkulatutako igorgarritasunarekiko, eta geruza horren barruan lodiera aseak geruzaren lodiera edo 0,30 m gainditu ez ditzan; neurri txikiena, hain zuzen ere.

– 1,5 edo 2 mm lodi den dentsitate altuko polietilenozko geomintza (HDPE).

– Hesi geologiko artifiziala 0,60 metro lodi den eta (10-9 m/s-ko iragazkortasuna duen geruza mineral trinkotuaz osatuta egongo da, 0,15 m-ko 4 geruzaz eraikia. Xede horretarako, ezaugarri horiek dituzten hondakin trinkotuak edo antzeko babesa bermatzen duen bentonitazko geokonposatua erabil daitezke.

– 0,50 m lodi den erregularizazio-geruza, Proctor Aldatua entseguaren gehienezko dentsitatearen % 95era trinkotutako hondakin hautatuaz osatua.

– Gasak drainatzeko geruza, sortutako gas-emaria husteko diseinatua, zabortegiaren barruan presioak sor ez daitezen, gasak atmosferara ihes egitea edo hondakin-masaren edo zabortegia zigilatzean egonkortasun mekanikoko problemak sortzea saihesteko.

Bestelako zigilatze-segidak proposa daitezke, modu egokian justifikatuz instalazioaren gorabehera zehatzei emandako soluzioa.

Ezpondaren eremuetan instalatu aurretik, zigilatzea osatzen duten geruzen egonkortasunaren azterketa egin beharko da, irristaduraren aurrean geruzek (1,5-eko segurtasun-faktorea dutela bermatu ahal izateko.

Behin betiko zigilatzearen azaleraren azken morfologia hauen arabera definituko da: utzi beharreko hondakin-masa itxi ondorengo 30 urteetan sortuko diren asentuen balioespena, eta zigilatze-segidan erabilitako materialek asentu horien ondorioz jasango dituzten deformazioei eutsiko dietela justifikatzeko kalkuluak. Modu berean, asentatzearen ondoren behin betiko zigilatzearen azalerak jariatze-ur garbiak biltzeko areketarantz gutxienez % 2ko isurialdea duela justifikatu beharko da, eta areka horiek diseinuko emari-ahalmenari eusteko aukera eskainiko dutela.

Gas-tximinien diseinuak eta horiek zabortegiaren zigilatzearekin lotzeak kontuan hartu beharko du utzi beharreko hondakin-masaren asentuen eragina, lotura horietan hausturak saihesteko.

Putzuetatik erauzitako zabortegiko gasa gasak baliotzeko instalazioraino eramateko hodi-sarearen trazadura diseinatzerakoan, kontuan hartu beharko da horrek ez duela oztopatu behar mantentze-lanak egiteko perimetro-bidetik zabortegi barrura ibilgailuz sartzea.

Bi sare paralelo ezarriko dira ateratako zabortegiko gasak eroateko: batetik, CH_4 askoko gasak eramango dira, eta bestetik, gutxi dutenak.

b) Malda egokiak izan daitezen, zabortegiaren azaleraren birmoldaketa amaitu ondoren, zabortegiaren azaleraren plano takimetriko bat altxatuko da, okupatuko duen azalera eta zigilatu beharreko azalera definituko duena. Gutxienez metro bateko zabalerako banda gehigarria okupatuko du, birmoldaketaren ostean zabortegiak okupatutako azalerarekiko. Plano takimetriko horren gainean, zigilatzeko lanetan ager daitezkeen lixibiatuen iturburuak kokatuko dira, horietako bakoitzean hauek zehaztuz: emaria, pH-a, tenperatura, eroankortasun elektrikoa eta neurketaren data.

c) Zigilatze-lanetan zehar sortzen den eta aldaketa nabarmenak eragiten dituen zigilatze-proiektuaren aldaketa oro ingurumen-organoari jakinarazi behar zaio, gauzatu aurretik onar dezan.

d) Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia zigilatu ondoren, zigilatze-lanen zuzendariak lanak ebazpen honetan ezarritako baldintza eta betebeharren eta ebazpenaren oinarri den agiri teknikoen arabera bete dela egiaztatu beharko du. Egiaztapena egiteko, obra-zuzendariak sinatutako zabortegia zigilatzeko obra-amaierako ziurtagiria bidali beharko du, ondorengo agiriekin batera:

– Dagokion eraikitze-proiektua («as built»), dagokion elkargo ofizial profesionalak oniritzia emanda duela. Plano-jokoa eta obra-fasean egindako aldaketek ebazpen honetan eta ebazpenaren oinarri diren agirietan ezarritako baldintza eta eskakizunei dagokienez segurtasunaren murrizketa ekartzen ez dutela adierazten duen justifikazioa. Halaber, obra bukatzerakoan ezin ikusi diren elementuen eta euren ezaugarrien argazki-erreportajea egin beharko du, xehetasunen ikuspegiak zein planoan duten kokalekua azalduz, ikuspegi panoramiko orokor gisa.

– Zigilatze-segidaren landare-lurren geruzaren gainazalaren plano topografikoa, UTM-ETRS98 koordenatuetan eta kota absolutuetan.

– Eraikitze-kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko programaren emaitzak. Programa horrek barnean hartuko ditu eginiko lanak deskribatzen dituen memoria, emaitzak eta ondorioak laburbiltzen dituzten taulak barne; horrez gain, esparruko eta laborategiko emaitza analitiko guztiak

jasotzen dituzten eranskinak (azken horien txosten osoak gehituko dira) eta laginketa-puntuen kokapena plano takimetrikoan.

e) Aurreko atalean adierazitako obra amaierako ziurtagiria eta hari erantsitako dokumentazioa ingurumen-organoari aurkeztu beharko zaio, onar dezan. Aurkeztutako agiriak egokiak direla ikusi eta egiaztapen-bisita egin ondoren, ingurumen-organoak isurketaren jarduera etetea, zigilatzearen bukaera eta itxi ondorengo aldia abiatzea onartuko du.

E) Hondakin ez-arriskutsuen zabortegia itxi ondorengo baldintzak:

a) Sasieta Mankomunitatea izango da zabortegia itxi ondorengo mantentze-lanen eta kontrolaren arduraduna, eta ingurumen-organoari horretaz arduratuko den pertsonaren izena jakinaraziko dio.

b) Posta-helbidea, telefonoa, faxa, posta elektronikoa edo edozein komunikabide eta kontaktu, edo itxi ondorengo kontrolaz arduratuko den pertsona aldatzen badira, zabortegiaren titularrak jakinarazi egin beharko du.

c) Itxi ondorengo kontrola eta zainketa-aldia 30 urtekoa izango da, zabortegiaren jarduera eten eta zigilatzea bukatzen den data onartzen den unetik kontatzen hasita. Ingurumen-organoak hala irizten badio, data hori aldatu ahal izango da, itxi ondorengo kontroletan lortutako emaitzen arabera. Itxi ondorengo aldiari dagokionez, sustatzaileak horrela eskatuta, ingurumen-organoak emandako ebazpenaren bidez ezarriko dira itxi ondorengo aldiaren bukaera eta horren inguruan ezarritako betebeharren epe-betetzea. Aldez aurretik atal honetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da.

d) Sasieta Mankomunitateak itxi ondorengo zainketak betetzeaz arduratuko den enpresa arduraduna izendatuko du. Enpresa hori zabortegiaren titularra ez baldin bada, titularrak enpresa hori gutxienez urtebeteko aldirako izendatuko du. Izendapen horren berri eman beharko zaio ingurumen-organoari, izendapena egin eta 15 eguneko epean, eta zabortegiaren titularraren ordezkariaren onarpen-sinadura, itxi ondorengo zainketaz arduratuko den enpresako ordezkariaren onarpen-sinadura eta titularrak emandako agirien zerrenda xehatua barne izango ditu. Zerrendak aipatu zabortegiari dagozkion administrazio-eskakizun guztiak eta zigilatzean eta ordura arteko itxi ondorengo zainketan zehar sortutako agiri tekniko guztiak jaso beharko ditu.

e) Itxi ondorengo aldian kokapenean obrak eta/edo jarduerak egin nahi izanez gero, aldez aurretik ingurumen-organoaren baimena beharko da. Nolanahi ere, jarduera horiek zigilatze osoa, perimetro-kanalen funtzionamendua, egonkortasuna edo itxi ondorengo kontrol-sistemaren elementuetan eraginik ez dutela, eta garatu nahi den jardueraren erabilerarako edo jarduerarako arrisku onartezina eragingo ez duela ziurtatu beharko zaio ingurumen-organoari. Hala eginez gero, horiek birjartzeko nahikoa neurri zuzentzaile aurreikusi direla ziurtatu beharko da.

Horretarako, zigilatzean sortzen den zuhaitz- edo zuhaixka-landaredia ezabatu egingo da.

Ereiteen mantentze-lanak egin beharko dira, hala nola, ebakitzeak, ongarritzeak eta ureztatzeak.

Zigilatzearen gainean landare-espezie inbaditzaileak jartzea zaindu beharko da; hala badagokio, horiek ugaltzea kontrolatu eta errotik kentzeko neurriak hartu beharko dira.

Erasandako eremu guztiak, zabortegia ezarri den lursailean eta bere instalazio osagarri eta sarbideetan kokatutakoak, nola zerbitzu-sareen eta lixibiatuen hustuketa gauzatzeko beharrezkoak direnak berrituko dira; baita aurkeztutako berritze-planean agertzen ez diren, baina plana bukatu ondoren erasandakoak ere.

Inolaz ere ez da baimenduko zabortegia itxi ondorengo fasean zabortegiaren zigilatzea bizilekurako erabiltzea. Halaber, ez da baimenduko inolako jarduketarik zigilatze-segidako ur garbien drainatze-geruzaren gainazaletik 50 cm baino gutxiagora hurbil dadin.

F) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

F.1.– Airearen kalitatearen kontrola.

F.1.1.– Atmosferara egindako isurien kontrola.

– Sasieta Mankomunitateak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
Biogas erregaiaren instalazioko tximinia (motorren isuria)	Partikula solidoak (mg/Nm^3)	Hiru hilean behin
	NOx (mg/Nm^3) NOx (ppm)	
	CO (mg/Nm^3) CO (ppm)	
	SO_2 (mg/Nm^3)	Hiru hilero lehen urtean Ondoren, urtero
	HCl (mg/Nm^3)	
	HF (mg/Nm^3)	
	H_2S (mg/Nm^3)	
	COT (mg/Nm^3)	
	Diox. eta F. (ng/Nm^3)	

– Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol erakunde baimendu batek (KEB) egin beharko ditu (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakoaren arabera egin beharko dira. Edonola ere, botatako gai poluitzaileen kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzak ezarritako eskakizun tekniko guztiak bete beharko dituzte.

– Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Isuri atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

Zabortegiko gasaren neurketa tximinien barnealdean, lixibiatuen irteeran eta azpiazaleko uren irteeran egingo da, baita zabortegiko gainazalean eta ustiapen-gunearen perimetroan ere.

Neurtu beharreko parametroak, gutxienez, hauek izango dira: CO, CO_2, O_2, H_2S eta CH_4, presio atmosferikoa eta airearen tenperatura. Barruan eta hilero neurtuko dira zabortegia ustiatzen den bitartean, eta sei hilean behin, itxi ondorengo ustiapen-fasean.

Urtero, neurketa bat egingo du kanpo-erakunde batek.

F.1.1.1.– Lortutako emaitzak erregistratzea.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egin diren neurketen emaitzak, mantentze-eragiketak, garbiketa, aldiroko berrikuspenak, matxurengatiko geldialdiak, egiaztapenak, edozein motatako gertaerak eta abar. Dokumentazio guztia eguneratuta edukiko da eta ingurumen-ikuskarien eskura egongo da.

F.1.2.– Atmosferara egindako immisioen kontrola.

Urtean gutxienez immisioko laginketa-datuak biltzeko kanpaina bat egingo da, bai langileen lan-eremuetan edo lan-ingurunean, bai instalazioaren ingurunean.

Laginketa-kanpaina horiek ahalik eta egoera okerrena duen aldean egingo dira. Lan-ingurunearen gaineko eragina baloratuko da, eragiketa eta lan guztietan, sarbideetan, isurketa-eremuan eta abar laginketa eginez.

Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, analisi hauek egingo dira ustiapen, itxiera eta itxi ondorengo faseetan:

Fokua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrol mota
Urtetako andel kontrolatua	Solido jalkigarriak	Kanpokoa
	Solido esekiak	
	Sufre dioxidoa (SO_2)	
	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	
	Oxigenoa (O_2)	
	Karbono monoxidoa (CO)	
	Azido sulfhidrikoa (SH_2)	
	Hidrokarburoak	

F.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, analisi hauek egingo dira zabortegiaren ustiapen-fasean:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Lixibiatuak (araztegitik igaro aurretik)	Bolumena, pH-a, eroankortasuna	Etengabea	Barrukoa
		pH-a, Eroankortasuna, Tenperatura, Solido esekiak, Kloruroak, Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK), Oxigeno-eskaera biologikoa (O_5EB), Amoniakoa, Amoniako erasokorra, Nitratoak, NTK, Olioak eta koipeak, Sulfuroak, Kolorea, fosfatoak	Hiru hilean behin	kanpokoa
	Lixibiatuak (araztegitik igaro ondoren)	Gipuzkoako Urek ezarritako parametro bereizgarriak	Gipuzkoako Urek ezarritako periodikotasuna	Gipuzkoako Urek eginak

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
-	Azaleko urak	Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK) Fluoruroak, Fosfatoak, Hidrokarburoak	Hiru hilean behin	kanpokoa
		Oxigeno-eskaera kimikoa (OEK), Fluoruroak, Fosfatoak, Hidrokarburoak, Kloruroak, Sulfatoak, Karbonatoak, Bikarbonatoak, Nitratoak, Kaltzioa (Ca), Magnesioa (Mg), Sodioa (Na), Potasioa (K), Nitritoak, Amonioa, Aluminioa (Al), Burdina (Fe), Manganesoa (Mn), Zinka (Zn), Kobrea (Cu), Nikela (Ni), Guztizko kromoa (Cr), Kadmioa (Cd), Beruna (Pb), Artsenikoa (As), Merkurioa (Hg), Eroankortasuna, pH-a, Oxidabilitatea-Fenolak, Zianuroak, Konposatu Organikoen Guztizkoak (KOG)	Sei hilekoa	
-	Lurpeko urak	Maila, Eroankortasun elektrikoa, pH-a, Tenperatura, Amonioa, Nitritoak, Nitratoak, NTK, OEK	Hiru hilean behin	kanpokoa
		Aurrekoak eta beste hauek ere: Fluoruroak, Fosfatoak, Hidrokarburoak, Kloruroak, Sulfatoak, Karbonatoak, Bikarbonatoak, Kaltzioa, Magnesioa, Sodioa, Potasioa, Aluminioa, Burdina, Manganesoa, Zinka, Kobrea, Nikela, Kromoa, Kadmioa guztira, Beruna, Artsenikoa, Merkurioa, Oxidabilitatea, Fenolak, Zianuroak, Konposatu Organikoen Guztizkoak (KOG)	Sei hilekoa	

Adierazitako kontrol-puntu bakoitzaren UTM koordenatuak aurkeztu beharko dira.

b) Zabortegia itxi ondorengo fasean, analisi hauek egingo dira:

Ingurune hartzailea	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
Gipuzkoako Uren kolektorea	Lixibiatua (araztegitik igaro aurretik eta ondoren)	Emaria, pH-a, eroankortasuna, tenperatura, solido esekiak, kloruroak, OEK, O_5EB, amoniakoa, amoniako erasokorra, nitratoak, NTK, olioak eta koipeak, sulfuroak, kolorea, fosfatoak	6 hilero
	Azaleko urak	Emaria/maila, eroankortasun elektrikoa, pH-a, tenperatura	6 hilero
	Lurpeko urak	Maila, eroankortasun elektrikoa, pH-a, tenperatura, NTK, amonioa, nitritoak, nitratoak, OEK	6 hilero

c) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara eta Gipuzkoako Ur Kontsortziora bidaliko dira laginak hartzen diren egunetik hasi eta hilabeteko (1) epean.

d) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

e) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, D.3.4.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen baditu.

f) Kontrol bakoitzak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, D.3.4.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen baditu.

F.3.– Datu meteorologikoen bilketa.

Zabortegia ustiatu eta itxi ondorengo aldian, parametro meteorologikoen kontrol bat egingo da zabortegi barruko estazio meteorologikoan, parametro hauek aztertu eta 10 minuturo gordeta:

– Haizearen abiadura eta norabidea.

– Airearen tenperatura.

– Hezetasun erlatiboa.

– Presio barometrikoa.

– Prezipitazioa.

– Eguzki-irradiazio orokorra.

Lurrunketa lisimetroetan lortuko da, eta horien kokapena eta ezaugarriak dagokien diseinua aurkeztu ondoren definituko dira.

F.4.– Zabortegiaren balantze hidrikoa.

Kanpoko erakunde batek urtero zabortegiaren balantze hidriko bat egin beharko du. Horretarako, erregistratutako lixibiatuen emariaren datuak eta erregistratutako datu meteorologikoak eta zabortegiaren gainazalean sortzen diren aldaketen plano topografikoak (zigilatutako eremuak, isurketarako eremuak, etab.) erabiliko dira.

Itxi ondorengo aldiko lehen balantzeak zabortegiaren portaera hidrodinamikoaren analisia barne izango du, erregistratutako emariaren eta eroankortasun elektrikoaren datuetatik eta itxi aurreko eta ondorengo balantze hidrikoaren alderaketatik abiatuta.

F.5.– Isuri-ontziaren topografia kontrolatzea.

Isuri-ontziaren topografiaren kontrola oinarrizko proiektuan jasotako proposamenaren arabera burutuko da. Kontrol topografiko horren emaitzek hauek jasoko dituzte: neurtzeko bitarteko eta materialak, gertatutako gorabeherak, aldi bateko bilakaeraren grafikoak, erregistratutako datuak euskarri elektronikoan (kalkulu-orria), eta horien interpretazioa.

Zabortegiaren ezpondan inklinometroak instalatzea ere barne hartuko du.

Urtero zabortegiaren betetze-lanen plano topografiko eguneratu bat egin beharko da, zabortegiaren mugak, zabortegiaren zona zigilatua, eta azken urtean hondakinak utzi diren zabortegiaren zona zehaztuta dituena, eta horien azalerak eta zabortegiaren gainazalean aldaketak egin diren datak adierazita.

F.6.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Ingurumena zaintzeko programak jardueraren parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko. Horretarako, sustatzaileak proposamen bat aurkeztuko du, adierazle horiek eta horien analisirako sistematika zehazteko, horrela ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko.

F.7.– Zarataren kontrola.

a) Hiru urtean behin, Ld, Le, Ln, LAeq,Ti eta LAeq, 60 segundo indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak egiteko maiztasuna.

b) Aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak ENAC erakundeak espazio- eta denbora-laginketarako egiaztatutako akustikaren esparruko entsegu-laborategiek egin beharko dituzte. Nolanahi ere, ingurumen organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek emandako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

F.8.– Emaitzak kontrolatzea eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Txosten horretan, hondakinak zabortegian biltegiratzeagatik urte horretan kobratuko diren prezioak adieraziko dira, hondakin-mota edo -taldeen arabera xehatuta. Urtero aurkeztuko dira prezioak, 1481/2001 Errege Dekretuan, 2001eko abenduaren 27koan, 11. artikuluan finkatutakoa betetzen dela egiaztatzeko. Errege Dekretu horren bitartez, hondakinak hondakindegian biltegiratuta ezabatzea arautzen da.

a) Bukatutako urteari dagokion balantze ekonomikoa, kontzeptuak xehatuz, bereziki aurreikusi gabekoak.

b) B atalean aipatutako finantza-azterketaren eguneratzea. Bertan, diru-sarrerak, aurreikusitako obren gastuak, ustiaketa-gastuak, hala badagokio bermeen zenbatekoaren eguneratzea, eta abar jaso beharko dira. Horrela, justifikatuta egon behar du diru-sarrerek zabortegiaren instalazioa, ustiapena, zigilatzea eta itxi ondorengo mantentze-lanetatik sortutako gastuak estaliko dituztela.

c) Emaitza ekonomikoen arabera, zabortegiaren instalazioa, ustiapena, zigilatzea eta itxi ondorengo mantentze-lanetatik sortutako gastuak finantzatzeko helburua zer neurritan bete den adieraziko da, eta negatiboa izanez gero, hartu beharreko neurriak.

Publikoak ez diren zabortegien kasuan, ekitaldi bakoitzaren hasieran bermeen zenbatekoa eguneratu beharko da, kontsumoko prezioen indize (KPI) nazionala aplikatuz.

Halaber, hurrengo urtean egin beharreko obren eta hondakinek bete beharreko eremuen aurreikuspena gehituko da, gutxi gorabeherako kotak, aurreko urtean utzitako hondakinen bolumenaren kalkulua, soberakin-gaitasuna eta urte horretan utzitako hondakinen batez besteko dentsitatea adieraziz.

F.9.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, baimen-eskaeran eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua adierazi beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

G) Prebentzio-neurriak eta funtzionamendu-baldintzak ohiz kanpoko egoeretan.

G.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

G.2.– Jarduera etetea, itxi ondorengo aldia bukatuta.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (90.002 epigrafea, «Hondakinak tratatzeko jarduerak»), eta lurzoruan kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Sasieta Mankomunitateak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

G.3.– Ezohiko funtzionamendua denean aplikatzeko prebentzio-neurriak eta jardunak.

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan jasotako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura saihesteko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Isuri-ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen isuri-ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak. Zuziaren erregailuaren kasuan, mantentze-lanak urtero egingo dira.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gertaerena ere.

d) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

e) Aurretik aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, zuziaren instalazioaren egoera ona bermatuko duten neurriak eta D.3.3 atalean jasotako ustiapenerako baldintzen betetzea jasoko dira.

f) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

g) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

h) Hidrokarburo-bereizgailua aldian-aldian ikuskatuko da, hondakinak pilatu ez daitezen; dekantagailuetan eta bereizgailuetan metatutako lohiak eta flotatzaileak aldian-aldian kendu behar dira. Hondakin horiek baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio.

i) Bereizgailuan metatutako lohiak, olioak eta koipeak aldian-aldian kendu behar ditu kudeatzaile baimendu batek. Isurketaren kalitateari eragiteko moduko mailetan metatzea saihestuko du.

j) Hidrokarburo-bereizgailuaren mantentze-lanei dagokienez, ondo garbituko dira eta aldiro bertan metatutako lohiak eta flotagarriak kenduko dira, kudeatzaile baimenduak jasotzeko.

k) Biltegien hondoan edo putzuetan pilatzen diren solidoak ez dira ibai-ibilgura hustuko aldizkako garbiketa egiten den bitartean; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegira eramango dira.

l) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, andel iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan biltegiratuko dira.

m) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

n) Arazteko instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, hori tratatzeko.

o) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeria aplikatuko da, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

p) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu honetan, baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Estazioan bilkariak edo gai pikortatuzko edo antzeko berariazko gai xurgatzaileak egongo dira, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

Ebazpen honen D.3.4 atalean ezarritako jarduketez gain, gasolioa biltegiratu eta manipulatzeko instalazioak behar bezala isolatuko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen haustura edota gainezkaldiengatik isuriak atxikitzeko.

Beharrezkoa izango da inplementatu beharreko instalazioa ustiatzeko protokolo edo eskuliburua, D.3.4 atalean ezarritakoa betetze aldera. Enpresa espezializatu batek egin beharko du, eta honako hauek finkatuko ditu: ekipamendu elektromekanikoen, zunden, mintzen, dosifikazio- eta kontrol-gailuen eta abarren berrikusketa eta mantentze-lanak. Halaber, beharrezkoa izango da araztegiaren mantentze-lanen protokoloa edo gidaliburua. Hori ere enpresa espezializatu batek egin beharko du, eta honako hauek finkatuko ditu: ekipamendu elektromekanikoen mantentze-lanak, arbastatze-garbiketak, sobera dauden solidoen eta lohien purgaketak, bai eta erreaktore biologikoko lohien kontzentrazioaren aldizkako jarraipena ere, haiek behar bezala purgatu eta kentzeko.

Era berean, nahitaez kontratu bat sinatzea eskatzen da araztegiaren mantentze-lanetarako, eta prozesuaren, errendimendu eta arazketaren, ekipamendu elektromekanikoen eta sentsoreen funtzionamendu egokia ikuskatzeko.

Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

q) Deshumidifkazio-sistema bat egongo da, biogasaren hezetasun-maila ihintz-puntutik nahikoa urrun dagoela ziurtatzeko.

r) Bereziki haizetsuak izango diren egunen iragarpena izanez gero (haizearen abiadura > 60 km/h), haizeak arrastaka eraman ditzakeen materialak aldez aurretik jaso beharko dira (plastikozko poltsak eta abar).

s) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isuria, isurtzeko muga-balioak gainditzea, edo zabortegiaren zigilatzearen edo itxi ondorengo sistemaren elementuren baten funtzionamenduari edo integritateari eragin diezaiokeen beste edozein), Sasieta Mankomunitateak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

t) Tartean dauden hondakinak arriskutsuak badira edo arriskutsuak direla susmatzen bada, gorabehera hori berehala jakinaraziko zaio faxez edo posta elektronikoz (jaso izanaren adierazpenarekin) Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari, gorabeheren erregistroan idatzitako datuak erantsita.

u) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, eta nolanahi ere ezbeharrezko isuria edo airerako isuria bada, SOS DEIAK eta Udalari jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, datu hauek agertuko dira:

– Gertakari-mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.

– Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Prebentziozko neurriak, berriro gerta ez dadin.

– Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

v) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztuko dira eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

H) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

I) Urtean behin, Sasieta Mankomunitateak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei, eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien E-PRTR-Euskadi inbentarioa landu eta eguneratzeko, kutsagarrien isurtze eta eskualdatzeen europar erregistro bat ezartzen duen 2006ko urtarrilaren 18ko 166/2006 (EE) Erregelamenduaren artezpideei jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Aipatutako informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Era berean, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatu ingurumen-adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori publikoa izango da, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta ingurumen gaietan justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak, xedatutakoari jarraikiz –lege horrek 2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak kontuan hartzen ditu– eta, betiere, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa bermatuko da.

J) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnek, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

K) Instalazioetan egiten den edozein aldaketa jakinarazi egin beharko da; horretarako, helbide elektroniko honetan datorren formularioa beteko da:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3252/es/contenidos/informacion/ippc/es_6939/adjuntos/cuestionario_modificaciones.doc

Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 10.2 artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz, organo horrek eskatutako aldaketa kalifikatu eta funtsezkoa den ala ez esango du.

Era berean, proiektatutako aldaketa Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko IB eranskinean, edo proiektuek ingurumenean duten eragina ebaluatzeko legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko I. eranskinean sartuta badago, hizpide dugun aldaketari baimena eman aurretik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko zaio.

Baldin eta aldaketa ez badago jasota ez 3/1998 Legearen IB eranskinean ez 1/1208 Legegintzako Errege Dekretuaren I. eranskinean, baina bai horren II. eranskinean, organo honek gehienez ere hiru hilabeteko epean erabakiko du aldaketa horri ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaion ala ez, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla:

A (erantzukizun zibileko asegurua);

B (finantza-azterketa eguneratua);

C (instalazioko arduradun teknikoaren informazioa);

D.3.1 (udal-hondakinentzako gelaxka independenteen eskuragarritasuna);

D.3.2 (ustiapen-plana);

D.3.3.2 (biogasa kontsumitzen duen instalazioaren titulartasuna egiaztatzeko agiria aurkeztea, eta biogasaren baliotze energetikoko instalazioari lotutako fokua katalogatzeko beharrezko agiri guztiak, zuziaren urteko jardun-denbora, eta putzuetako eta bildutako gasen karakterizazio-analisia);

D.3.4.1 (lixibiatuak tratatzeko proiektua);

D.3.6.a (lurzoruaren egoeraren aldez aurreko txostena);

D.3.6.b (arriskuen ebaluazio eguneratua);

D.3.6.c (ur kontuetako organo eskudunaren txostena);

F.1.1 (isuri atmosferikoak kontrolatzea);

F.1.1.1 (isuri atmosferikoen erregistro-eredua);

F.3 (datu meteorologikoen bilketa);

F.9 (ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina);

G.1 (geldialdi programatuetan sortutako isurtze eta hondakinen balioespena)

G.3.c) (ustiapenari buruzko eskuliburua);

G.3.f) (larrialdi-kasuetarako material-zerrenda);

G.3.v) (suteen aurkako neurri babesleak);

eta gainera, betetzea aurreikusita dauden eta ebazpen honetako dagokien atal desberdinetan baimendutako edo eskatutako obra edo instalazioak betetzeko epeen berariazko Adierazpena aurkeztu beharko da.

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari eskumendun batek egina.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, Ingurumen Sailburuordetzak ingurumen-baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Udalekoak ez diren hondakinei dagokienez, ebazpen honen D.2.3 atalean sustatzaileak zabortegiko gelaxka bakoitzaren eraikuntza-lanak bukatu ondoren dituen betebeharrei buruz finkatutakoa bete ondoren baino ezingo dira kudeatu.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da, eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da. Emango den ebazpena zigilatzearen gauzatzearen amaieraren onarpenari, zigilatutako gainazalari dagokion lurzoruaren kalitatearen adierazpenari eta itxi ondorengo aldiaren hasierari buruzkoa izango da.

Laugarrena.– Edonola ere, ingurumen-baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuetan.

Artikulu hori betetzearen kalterik gabe, ebazpen honen baldintzak –ingurumena zaintzeko programan jasotakoak barne hartuta– aldatu ahal izango dira, jardueraren sustatzaileak eskatuta, behar bezala justifikatuz gero. Gainera, ofizioz aldatu ahal izango dira, honako egoera hauetan:

– Araudi berria indarrean jartzen bada.

– Ingurunearen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza esanguratsu berrietara egokitzeko beharra ikusten bada, bereziki inplikatutako sistemen hauskortasuna areagotzen dela antzematen bada.

– Ingurumena zaintzeko programan jasotako emaitzen edo bestelako oharpenen arabera, ingurumen-inpakturako ezarritako neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileak nahikoa ez direla egiaztatzen bada.

Bosgarrena.– Sasieta Mankomunitateak ebazpen honen xede den hondakin ez-arriskutsuen zabortegiaren proiektuaren inguruan titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko dio, hark onar dezan.

Edonola ere, zabortegiak eta bere instalazio osagarriek okupatutako lursailaren titulartasuna transmititzen bada edo hori edukitzea bertan behera uzten bada, ebazpen honetan aurreikusitako betebeharrak betetzen jarraitu beharko da. Hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009ko Dekretuaren 21 eta 24.4 artikuluan finkatutakoaren arabera, ingurumen-organoari jakinarazi beharko zaio titulartasunaren transmisioa

hura gauzatu eta hilabete baino gutxiagoko epean. Ingurumen-organoak agirien bidez onartu beharko du transmisio hori, dagokion ebazpena eginez.

Seigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako kasu hauetan:

– Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumen-baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak, behar bezala justifikatuz, epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Sasieta Mankomunitatearen nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Sasieta Mankomunitateari, Beasaingo Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei eta gainerako interesdunei.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Bederatzigarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hori guztia azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 114. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraiki (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 5a.

Ingurumen sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.

I. ERANSKINA

HONDAKIN ONARGARRIAK

a) Aurrez tratatutako hondakinak, edo nahiz eta aurrez tratamendu bat ez ezarri, haiek baliotzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria ez dela ziurtatuta duten hondakinak.

10	Prozesu termikoen hondakinak
10 02	Burdinaren eta altzairuaren industriaren hondakinak
10 02 01	Zepa-tratamenduaren hondakinak
10 02 02	Tratatu gabeko zepak.
10 09	Burdinazko piezen galdaketaren hondakinak
10 09 03	Labeko zepak
10 10	Burdinarik gabeko piezen galdaketaren hondakinak
10 10 03	Labeko zepak
20	Udal-hondakinak (etxeko hondakinak eta denda, industria eta erakundeetatik sortutako hondakin asimilagarriak), gaika jasotako frakzioak barne
20 02	Parke eta lorategien hondakinak (hilerrietako hondakinak barne)
20 02 02	Lurra eta harriak
20 02 03	Bestelako hondakin ez-biodegradagarriak
20 03	Bestelako udal-hondakinak
20 03 01	Udal-hondakinen nahasteak
20 03 02	Azoketako hondakinak
20 03 03	Errepideen garbiketaren hondakinak
20 03 04	Hodi septikoetako lohiak
20 03 06	Estolda-garbiketako hondakinak
20 03 07	Hondakin handiak

b) Izendapen generikoko hondakinak direlako edo haiek baliotzea teknikoki, ekonomikoki edo ingurumenari dagokionez bideragarria ez dela ziurtatzeko beharra dutelako, kudeatu ahal izateko aurrez organo honen baimena behar duten hondakinak:

10	Prozesu termikoen hondakinak
10 09	Burdinazko piezen galdaketaren hondakinak
10 09 06	10 09 05 kodean zehaztutakoak ez diren isurketa gabeko galdaketako arrak eta moldeak
10 09 08	10 09 07 kodean zehaztutakoak ez diren isurketadun galdaketako arrak eta moldeak
10 10	Burdinarik gabeko piezen galdaketaren hondakinak
10 10 06	10 09 05 kodean zehaztutakoak ez diren isurketa gabeko galdaketako arrak eta moldeak
10 10 08	10 10 07 kodean zehaztutakoak ez diren isurketadun galdaketako arrak eta moldeak

17	Eraikuntzaren eta eraispenaren hondakinak (kutsatutako eremuetan hondeatutako lurra barne)
17 05	Lurra (kutsatutako eremuetan hondeatua barne), harriak eta
17 05 04	17 05 03 kodean zehaztutakoak ez diren lurra eta harriak
20	Udal hondakinak (etxeko hondakinak eta denda, industria eta erakundeetatik sortutako hondakin asimilagarriak), gaika jasotako frakzioak barne
20 02	Parke eta lorategien hondakinak (hilerrietako hondakinak barne)
20 02 01	Hondakin biodegradagarriak
20 03	Bestelako udal-hondakinak
20 03 99	Beste kategoria batean zehaztu gabeko udal-hondakinak